



Zizurkilen jaietan
eman daitezkeen

INDARKERIA MATXISTA

kasuen aurrean herri mailako

PROTOKOLOA

[2017]

AURKIBIDEA

1.	SARRERA	3
1.1.	Nolako izan den protokoloa eratze-prozesua	3
1.2.	Ze indarkeria kasuri eman nahi die erantzuna protokolo honek	4
1.3.	Ze momentutan egongo da martxan protokolo hau.....	4
2.	INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ANTOLATUKO DIREN EKINTZAK.	5
3.	ERASO BAT GERTATZEAN ZER EGIN ETA NOLA LANDU ALDEZ AURRETIK [IBILBIDEA].....	6
4.	TALDE ERAGILEA.....	9
4.1.	Osaketa.....	9
4.2.	Funtzioak	9
4.3.	Funtzionamendua.....	9
4.4.	Zabalkunde Taldea	9
5.	SALAKETA PUBLIKOA	11
5.1.	Momentuko erantzuna.....	11
5.2.	Erantzun bateratua.....	11
6.	PROTOKOLOAREN EBALUAKETA	13

1. SARRERA

1.1. Nolakoa izan den protokoloa eratze-prozesua

Zizurkilgo jaietarako indarkeria protokoloa eratzeko prozesua, prozesu parte-hartzailea izan da. **4 saio** burutu dira, Farapiko langileek dinamizatuta, **sentsibilizatzeko** eta **formatzeko**, **hausnartzeko** eta taldean protokoloa **eztabaidatu** eta **definitzeko**.

Hona hemen saio bakoitzean egondako partaidetza:

		ek.2	ek.30	uzt.7	uzt.19
Herri mugimenduak, elkarteak...					
1	Ane Galarza	Aizan Talde Feminista	✓		
2	Oihana Usabiaga	Aizan Talde Feminista	✓	✓	✓
3	Irene Hernández	Aizan Talde Feminista		✓	
4	Pira V. Barandiaran	Aizan Talde Feminista		✓	
5	Irene Zaldua	Aizan Talde Feminista		✓	
6	Haritz Iraola Urbiet	Txepetxa Gazte Asanblada	✓	✓	
7	Irantzu Urkola	Txepetxa Gazte Asanblada		✓	
8	Igotz Alkorta	Goiko Festa Batzordea	✓		✓
9	Larraitx Goenaga Altuna	Beheko Festa Batzordea	✓	✓	
10	Iker Urruzola	Beheko Festa Batzordea			✓
11	Matti Navas	Beheko Festa Batzordea			✓
12	Irati Irurzun	Txepetxa Gazte Asanblada	✓	✓	✓
13	Joxin Azkue Gabilondo	Hernandorena Kultur Elkartea	✓	✓	

14	Nerea Lizarraga	Urkamendi Elkartea	✓		
15	Josu Sarasola	Danena Kirol Elkartea	✓		
16	Lurdes Gorostegi	P.M. Otaño Eskola - OMBU	✓		
17	Begoña Calvo	Zizurkilgo Eskola Kirola	✓	✓	
Ostalarriak					
18	Judith Perez	Plaza Berri Jatetxea	✓	✓	✓
19	Pello Elola	Saski Kafetegia	✓		
20	Amaia Zabala	Atxulondo Jatetxea	✓		
Udala					
21	Anabel Balerdi	Gizarte Langilea	✓	✓	✓
22	Garikoitz Tapia	Udaltzain laguntzailea	✓		
23	Ander Otaño	Udaltzain laguntzailea			✓
24	Angel Zubizarreta	Zizurkilgo Udaltzainburua	✓	✓	
25	Ainhoa Larrea	Udaleko teknikaria	✓		✓
26	Eva Usandizaga	Berdintasun zinegotzia	✓	✓	✓

1.2. Ze indarkeria kasuri eman nahi die erantzuna protokolo honek

Protokolo hau **INDARKERIA MATXISTA kasuen aurrean** aktibatuko da.

INDARKERIA MATXISTA tzat joko dugu sozializazio binarioan eta genero ezberdintasunean jatorria duen indarkeria. Honen barne, **indarkeria sexista** (emakumeek emakume izateagatik jasaten duten indarkeria; duen helburua emakumeen kontrola eta haien gaineko nagusitasuna betikotzea da) eta **beste indarkeria matxista batzuk** (hau da, atxikita daukaten genero binario eta sexualitate eginkizun sozialei erantzuten ez dieten pertsonak pairatzen dituztenak. Homofobia, lesbofobia eta transfobia lirateke).¹

1.3. Ze momentutan egongo da martxan protokolo hau

- ✓ **Herri-guneko** (Zizurkil goiko) jaiak: abuztuaren erdialdera.
- ✓ **Elbarrenako** (Zizurkil beheko) jaiak: irailaren hasieran.
- ✓ **Blues gaua, MaiatzaSaltsan, Txapela eguna** eta bestelako egun esanguratsuen bueltan ospatzen diren jaietan.

¹ Gipuzkoako Foru Aldundiak "Indarkeria matxistari, Gipuzkoako Foru Aldundian erabilitako terminologiari eta horren oinarria den azterketari buruzko agiria"-n proposatutako definizioa.

<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/73649/Terminolog%C3%ADa-+Indarkeria+matxistaren+arloko+kontzeptuak/e3735ecc-9da2-413f-a476-f930a8bfc6f1>

2. INDARKERIAREN PREBENTZIORAKO ANTOLATUKO DIREN EKINTZAK

Festen aurretik:

- ✓ Protokoloa ezagutzera ematea:
 - Protokoloaren aurkezpen ekitaldia egitea.
 - Kolektibo zehatzei ezagutzera ematea:
 - Tabernari eta txosnetako langileei.
 - Guraso elkartekoei.
 - Herritarrei begira, auzo bakoitzak duen errealitatea ikusita, honakoa proposatzen da:
 - Elbarrenan: portaletan jartzea.
 - Herri-gunean: postontzietan banatzea.
- ✓ Prebentziorako egin daitezken ekintzen zerrenda bat proposatzen da. Talde Eragileak ekintza hauetatik bat edo batzuk aukeratuko ditu urtearen arabera prebentzioa lantzeko.
 - Iada beste erakunde batzuk prestatu eta zabaltzeko dauzkaten materialen banaketa (Emakundek...).
 - Txosnetan eta tabernetan jartzeko mezu entzungarriak.
 - Whatsapp bidez bidaltzeko mezu nahiz bideoak.
 - ...

Jaien aurretik edo lehen egunean:


- ✓ Jaiak hasi aurretik edo jaietako lehen egunean burutuko den ekintza bat sartuko da. Ekintza hau jaietako programan azalduko da.
 - Herri-gunean herri-argazkia egingo da txupinaren aurretik.
 - Elbarrenan jai batzordeak erabakiko du Aizan talde feministarekin koordinatuz. Behin adostua zer egin protokolo honetan txertatuko da urtero ekintza berdina egiteko.
- ✓ Bi kasuetan pankarta bat egingo da, ondoren, eraso bat ematen baldin bada erabili ahal izateko lelo aproposa izango duena.

AIZAN talde feministarekin koordinazioa


AIZANek ekintzaren bat antolatzen duenean Talde Eragilearekin harremanetan jarriko da ekintzak koordinatzeko.

3. ERASO BAT GERTATZEAN ZER EGIN ETA NOLA LANDU ALDEZ AURRETIK [IBILBIDEA]

0 MOMENTUA: JAIK BAINO LEHEN




1 MOMENTUA: JAIETAKO LEHEN EGUNEAN




- Prebentzio ekintzak aukeratu eta martxan jarri.
- Zabalkunde taldeari deialdia egin laguntzea beharrezkoa balitz.
- Manifestazioa prestatu.
- Ebaluazioa egin
- Ebaluazioa publikoa egin.

2. MOMENTUA: ERASOA GERTATUKO BALITZ ERASOTUARI ...



3 MOMENTUA: EBALUAKETA



4. TALDE ERAGILEA

4.1. Osaketa

- Dagokion auzoko jai batzordeko 2 kide.
- Aizan talde feministako 2 kide.
- Berdintasun zinegotzia eta/edo Alkatea.

4.2. Funtzioak

- ✓ Protokoloa ezagutaraztea.
- ✓ Prebentzio ekimenak aukeratzea, antolatzea, egin eta bultzatzea
- ✓ Zabalkunde taldeari deialdia egitea laguntza beharko balitz edozein eremuan.
- ✓ *Zabalkunde taldearekin* koordinatu beharra egongo balitz.
- ✓ Protokoloa interpretatzea eta erabakiak hartzea.
- ✓ Herriko ordezkariak eta ahots eramaileak adierazpen publikoei begira.
- ✓ Behin jaiak amaituta, ebaluaketa egin eta ezagutzera ematea.
- ✓ Salaketa publikoa antolatu eta burutzea.
- ✓ Erasotuari laguntza eskaintzea.
- ✓ Hurrengo egunean edo:
 - Erasotuaren ongizateagatik galdetu.

4.3. Funtzionamendua

- ✓ Jaien aurretik eta amaitutakoan bilduko da, sistematikoki.
- ✓ Jaietan erasoren bat emango balitz, berriro ere elkartzearen aukera baloratuko da.
- ✓ Whatsapp bidezko talde bat osatuko dute talde eragileko partaideek bat-bateko komunikaziorako.
- ✓ Udalak talde eragilea biltzeko deialdia egingo du.

4.4. Zabalkunde Taldea

Prozesuan parte hartu duten eragileak eta norbanakoez gain gaiarekin sentsibilitatea duten bestelako eragile edo norbanakoak izan daitezke. Hauek, protokolo hainbat momentuetan laguntzeko prestutasuna izango dutenak dira. Aldi berean, protokoloaren nondik norakoak “ondo” ezagutuko dituzte. Beraz, protokoloan laguntzeaz gain gaian informazioa eta formazioa izango duten aliatuak dira.

Zabalkunde taldekideak protokoloaren osaeran parte hartu duten eragileak diren heinean hemen parte hartzaileen zerrenda bat atxikitzen da, zerrenda honetara joko da talde hau aktibatu behar den momentuetan:

Zabalkunde taldea **honako momentuetan aktibatuko** da:

- ✓ Protokoloa ezagutarazteko.
- ✓ Prebentzio ekimenak antolatzeko (lan banaketa egiteko...) orduan beharrezkoa balitz.

- ✓ Manifestazioaren ekimena antolatzeko beharrezkoa balitz.
- ✓ Salaketa publikoa antolatu eta burutzeko beharrezkoa balitz.
- ✓ Behin jaiak amaituta, ebaluaketa egin eta ezagutzera emateko babesa beharko balitz.
- ✓ Talde eragileak beharrezkoa ikusten duen beste edozein momentuetan.

5. SALAKETA PUBLIKOA

5.1. Erasoa taberna edo txosna batean ematen denerako momentuko erantzuna

- ✓ Musika kendu
- ✓ Korte bat jarri.
- ✓ Erasotzailea tabernatik kanporatu

5.2. Erantzun bateratua

Eraso bat ematen denean Talde Eragileak baloratuko du agerraldi publikoa egin ala ez. Hala eta guztiz ere, jarraian zehazten den erasoren bat emango balitz ez da zalantzan jarriko salaketa publikoa egin ala ez, aldez aurretik adostua baitago egingo dela.

- Bortxaketa bat ematen bada.
- Indarkeria fisikoa ematen bada.
- Intimidazioa, jazarpena, mehatxuak... erabiltzen badira norbaiti nahi ez duen zerbait eginarazteko.

Erabakia hartzerako orduan honakoak izango dira kontutan hartu beharreko **irizpideak**:

- ✓ Ze eraso mota izan den eta zer nolako ondorioak izan dituen.
- ✓ Emakumeak agerraldia egitea nahi duen.

- ✓ Herri mailan duen transzendentzia (bolo-bolo badabil, leku publiko eta jendetsu batean eman bada...).

Talde Eragileak agerraldi publikoarekin aurrera egitea erabakitzen badu salaketa publikoa **ahalik eta azkarren** emateko lan egingo du. Hala eta guztiz ere, **gertakaria konfirmatzea** komeni da edozein salaketa egin aurretik.

Jaien hasierako pankarta erabiliko da.

ADI!!

Erasotua edota erasotzailea ADIN TXIKIKOAK direnean, edozein administrazio-tramite martxan jartzeko tutorearen/tutoreen baimena behar dela.

Agerraldi publikoan emango den **informazioaren kudeaketa**:

- ✓ Erasotuari zuzeneko elkartasuna adieraziko zaio, salaketa jarri ala ez. Taldean udal ordezkariak daudenez, erasotuari jakinaraziko zaio beraien eskaerei erantzuteko daudela.
- ✓ Indarkeria gaitzetsiko da eta dei egingo zaie herritarrei beraien gaitzespena adierazi dezaten.
- ✓ Aldi berean, eraso bat ematen denean horren aurrean jarrera pro-aktiboa izan dezaten eskatuko zaie, erasotuari laguntza eskaini eta erasotzaileari horrelakorik onartuko ez dela adieraziz.
- ✓ Ez dago erasotzaile ezta biktimaren profilik, beraz, erasotzailea edo biktima maila sozial, jatorri, kultura edota maila ekonomiko jakin batekoa denaren ideia edota irudia ez da helarazi behar.
- ✓ Estereotipo eta rol sexisten erabilpena ekidin, indarkeria matxista iraunarazten baitute (adib. “pasiozko hilketa”, “etxeke indarkeria”...).
- ✓ Erasotua ez da izen-abizen edo helbidearekin identifikatuko. Erasotzailea, epaiak erruduntzat jo arte ere ez da identifikatuko, baldin eta ez badu bere krimena aitortu. Aldiz, erasotuekin izandako jokaera bai identifikatuko da, beste emakumeek tratatu txar egoera detektatu ditzaten.

6. PROTOKOLOAREN EBALUAKETA

Jaiak amaituta eta **hurrengo astean**, Talde Eragilea bildu eta protokoloaren ebaluaketa burutuko du. Ebaluaketa honek bi helburu izango ditu; batetik, herritarrekin eman ahal izan diren erasoen inguruko informazioa konpartitzea, eta bestetik, protokoloa bera egokitzen joatea.

Ebaluaketan honako informazioa landuko da:

- Prebentzio neurriek herritarrek kola erantzun dieten.
- Zenbat kasu eman diren jaietan.
- Ze motako erasoak izan diren.
- Protokoloak emandako erantzuna. Zer egin den kasu bakoitzean.
- Behar bezala funtzionatu duen.
- Erantzuna nahikoa izan den.
- Herriak erantzun ona eman duen baloratzea.
- Hurrengo jaiei begira kontutan izan beharrekoak.
- Baloratu tabernetan eta txosnetan lanean ari direnentzat Talde eragileko edo eguneko batzordeko arduradunaren telefonoa helarazi behar zaion langileak izan ahal dituen zalantzak argitzeko.

Gainera, ebaluaketan landutako informazioa aztertuta, Talde Eragileak urte osoari begira hainbat aholku konpartituko ditu, berdintasun eza arazo estrukturala den heinean, urte osoan zehar eta bizitzako esparru guztietan ematen den zerbait baita, ez bakarrik jaien baitan plazaratzen dena.

Hortaz, protokolo hau sortzeko prozesuan partaide izan direnek argi utzi nahi izan dute protokolo integral baten beharra dagoela, eta posible den heinean, etorkizunean heldu beharreko gai bat dela.

Prebentzioaz hitz egin denean, baita ere aipatu da hezkuntzak duen garrantzia ikusita, bide horretan lanean jarraitu behar dela: mikromatxismoen detekzioan, etabar.

Behin balorazioa egin ostean, herrira zabalduko da. Horretarako udalak eskura dituen euskarriak eta tokiko komunikabideak erabiliko dira.